

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HEZKUNTZA ETA KULTURA SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko uztailaren 10ean hartutako erabakiaren laburpena; bertan onartzen baitira ikasteko zailtasunak dituzten neska-mutilei laguntzeko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuko laguntzen deialdi publikoa eta deialdia arautzen duten oinarri espezifikoak. 2020-2021 ikasturtea

BDNS(Identif.): 515699

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdns-trans/index>).

Lehena. Onuradunak

Vitoria-Gasteizko ikastetxeak izango dira laguntzen hartzaileak, zehazki, lehen hezkuntzan irakaskuntza gauzatzen dutenak. Hala, ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei laguntza psikopedagogikoa emateko erabiliko dute, betiere Udalaren Hezkuntzak Zerbitzuak (Hezkuntza eta Kultura Saila) onartzen badu, ikastetxeek aurkezten dituzten eskaerekin eta txostenekin bat etorriz.

Bigarrena. Helburua

Diru laguntzen deialdi honen xedea hau da: 2020-2021 ikasturtean Vitoria-Gasteizko ikastetxeei laguntza ekonomikoa ematea. Lehen hezkuntzan matrikulatuta dauden, eta ikasteko zailtasunak dituzten neska-mutikoek laguntza psikopedagogikoko hori eskuratzeko aukera izan dezaten.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko uztailaren 10ean onartu zituen, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

165.000,00 eurokoa da deialdiaren zuzkidura.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak eta agiriak aurkezteko epea oinarri hauen deialdiri dagokion testu-zatia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean irekiko da, eta 2020ko irailaren 25era arte egongo da irekita (egun hori ere barne). Eskabideak epez kanpo aurkeztea diru laguntzak emateko prozeduratik kanporatzeko arrazoi izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 10a

Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkaria
ESTÍBALIZ CANTO LLORENTE